

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2024 000001584

Espediente-zenbakia: 2023/IDA_ERA_0124

Xedea**Aritzatxuko kantinaren emakida esleitzeko Administrazio-baldintza zehatzen agiriak zuzentzea.****Aurrekariak**

Lehenengoa: 2024ko otsailaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki bidez, Aritzatxuko kantinaren emakida esleitzeko Administrazio-baldintza zehatzen agiria onartu zen.

Bigarrena: Deialdiaren iragarkia 2024ko martxoaren 6ko Bizkaiko Foru Aldundian argitaratu zen.

Hirugarrena: Proposamenak aurkezteko epea amaituta, 2024ko apirilaren 10ean, Kontratazino mahaia batu zen, eta Administrazio-baldintza zehatzen agirian akatsak zeudela ikusi zen. Hori horrela, Administrazio-baldintza zehatzen agiria zuzendu beharra dagoela eta proposamenak aurkezteko epe berri bat zabaldu behar dela iritzi zen.

Argudioak

Lehenengoa: Administrazio-baldintza zehatzen agirian egondako akatsak hauek dira:

- 4. atalean (Esleipen irizpideak), "Eskainitako prezioa: $P_n = 50 \times (E_o/E_n)$ " ipintzen du, "Eskainitako prezioa: $P_n = 50 \times (E_n/E_o)$ " ipini beharrean.

- 10. atalean (Eskariak aurkeztea), "Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera" ipintzen du, "Posta bulegoetan, erregelamendu bidez araututako moduan" ipini beharrean.

Gainera, honako paragrafo hau gehitzearen beharrezana ikusi da: "Edozein kasutan, dokumentazioa gutunazal edo artxibo itxietan aurkeztu beharko da, eta ziurtagiri digital bidez sinatuta kontratatzailearen profilean aurkezten den kasuetan".

- 15. ataleko B) azpiatalean (Betebehar bereziak), "Bermeoko Udala Bizkaiko Foru Aldundiaren Kudeaketarako Sistema Integratuan dago Aritzatxuko hondartza kudeatzeko, beraz, sistema horrek ezarritakoa bete beharko du esleipendunak. Horretarako, eskatzen diren agiriak finkatutako epeetan bete beharko ditu (fitxak, etb) eta udalaren laguntza eta argibideak eskura edukiko ditu" ipintzen du, "Hondartzaren kudeaketarako Bermeoko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzeta-hitzarmena (2022-2024) betetzeko, administrazioak eskatzen dizkionak bete beharko ditu esleipendunak" ipini beharrean.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E8000F45D300B2Y9T0N2Q9S9

Sinadurea eta dataNADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 11/04/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/04/2024
10:38:27EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0124

Data: 24/08/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

Horren inguruan, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra onartzen duen 39/2015 Legearen 109.2 artikulua, zera jasotzen du: “Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos”.

Eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 122.1 artikulua honakoa adierazten du: “Los pliegos de cláusulas administrativas particulares deberán aprobarse previamente a la autorización del gasto o conjuntamente con ella, y siempre antes de la licitación del contrato, o de no existir ésta, antes de la adjudicación, y solo podrán ser modificados con posterioridad por error material, de hecho o aritmético”.

Beraz, kontutan edukita egiteko akatsak eta akats aritmetikoa egon dela, akatsak zuzendu daitezke eta horrela egin behar da.

Bigarrena: Administrazio-baldintza zehatzen orriak zuzentzeko ahalmena alkateari dagokio, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik, kontratazio-organo gisa duen eskumena alkatea delako, balio estimatua indarrean dagoen aurrekontuaren baliabide arrunten % 10 baino handiagoa ez delako. Baina 2024ko otsailaren 28ko 926 Alkatetza Dekretu bidez, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Hala ere, kontutan edukita emakida ekainaren 1erako indarrean egon behar duela eta zuzenketa egitea premiazkoa dela, eskaintza berriak aurkeztek epea zabaldu behar delako, zuzenketa iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, egindako delegazioa abokatzea ezinbestekoa ikusten da, alkateak zuzenki eramateko.

Erabakia

Goian aipatutako guztia kontuan hartuta honakoa erabaki dut:

LEHENENGOA: Aritxatzuko kantinaren emakida esleitzeko Administrazio-baldintza zehatzen agiriak zuzentzeko Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatuta ahalmena abokatzea, alkateak zuzenki eramateko.

BIGARRENA: Aritxatzuko kantinaren emakida esleitzeko Administrazio-baldintza zehatzen agiriak modu honetan zuzentzea onartzea:

-Administrazio-baldintza zehatzen 4. atalean (Esleipen irizpideak), honakoa ipintzea:

“Eskaintako prezioa: $P_n = 50 \times (E_n/E_o)$ ”.

Honakoa ipintzen duen lekuan:



“Eskaintako prezioa: $P_n = 50 \times (E_o/E_n)$ ”.

-Administrazio-baldintza zehatzen 10. atalean (Eskariak aurkeztea), honakoa ipintzea:

“Posta bulegoetan, erregelamendu bidez araututako moduan”.

Honakoa ipintzen duen lekuan:

“Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera”.

Eta honako paragrafo hau gehitzea: “Edozein kasutan, dokumentazioa gutunazal edo artxibo itxietan aurkeztu beharko da, eta ziurtagiri digital bidez sinatuta kontratatzailearen profileen aurkezten den kasuetan”.

-Administrazio-baldintza zehatzen 15. ataleko B) azpiatalean (Betebehar bereziak), honakoa ipintzea:

“Hondartzaren kudeaketarako Bermeoko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena (2022-2024) betetzeko, administrazioak eskatzen dizkionak bete beharko ditu esleipendunak”.

Honakoa ipintzen duen lekuan:

“Bermeoko Udala Bizkaiko Foru Aldundiaren Kudeaketarako Sistema Integratuan dago Aritzatxuko hondartza kudeatzeko, beraz, sistema horrek ezarritakoa bete beharko du esleipendunak. Horretarako, eskatzen diren agiriak finkatutako epeetan bete beharko ditu (fitxak, etb) eta udalaren laguntza eta argibideak eskura edukiko ditu”

HIRUGARRENA: Eskaintzak aurkezteko epe berri bat zabaltzea. Proposamenak aurkeztu izan dituzten lehiatzaileek ere, proposamenak aurkeztu beharko dituzte berriro ere.

LAUGARRENA: Idazkaritza Sailari Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zuzenketaren eta eskaintzan aurkezteko epe berria zabaltzearen iragarkia argitaratzeko agindua ematea. Iragarkian, eskaintzak aurkeztu dituzten lehiatzaileek proposamenak berriro aurkeztu beharko dituztela jasoko da.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .

**Sinadurea eta data**